



## **OSINTXU - UBERA (4. etapa)**

- **0:00** Osintxuko plazatik Soraluze aldera hartuko dugu errepidetik. Presara iritsi eta handik ehun bat metrora "Mugarri" markatzen digun bidea hartuko dugu ezkerrean, gorantza, errepidea lagata.

**57. mugarria, "Mugarri"** izeneko mugarria pixkat aurrerago zegoen, Soraluze aldera 200 bat mt jarraituaz, sasoi bateko *Mugarri* izeneko baserriaren aurrean, lehenagoko errepidearen kontra.  
Gaur egun desagertuta dago, oraingo saihebide eta Osintxuko bide gurutzaren inguruan.

- Lehen aipatutako goranzko bidea jarraituta, gaur egungo Mugarri izena duen txabolara helduko gara; han, gora egiten duen bide zabala hartuko dugu eta zelai bazterretik altura hartzen joango gara, txabola zahar batera iritsi arte.
- **0:15** Txabolaren aldamenen dagoen langa pasatu eta eskumara hartuta berehala beste hesi bat pasatuko dogu. Hemen bi aukera dauzkagu:

**-a)** -ezkerraldeko bide zidorretik abiatuta, gainekaldean daukagun basoan sartu eta bide barik, baso garbian, eta aldapa handi eta neketsu batetik gora egingo dugu, mendi-bizkarraren billa, harri pilla bat dagoen ingurura.

**56. mugarria, Mugarri etxetxo-burua**, mendi bizkar inguru honetan izan bihar litzake, baina harri txiki bat denez, beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan.

mendi-bizkarretik gora jarraituko dogu jurgua doan ingurutik, aldapa gogorrian, eta horma zahar baten zati batzuk ikusiko ditugu goialdean. Bertatik jarraitu biharko dogu goialdeko Itzio-egi inguruko zelaira irten arte. Gainekaldian antena bat ikusiko dogu eta harutz hartuta harrizko horma txiki bat hasten dan lekura helduko gara.

**-b)** –Txabola osteko hesia pasatu ondoren, zuzen-zuzen aurrera bide nahiko garbitik joko dugu Soraluze aldera (ipar aldera) eta bi errekatxo zulo pasatu ondoren, mendi bizkar batera irtengo gara, Itzio baserri barrenekaldera. Bertan beste hesi bat pasatu eta ezkerrean joko dogu hesiaren kontra (hego aldera) bide batera irten arte. Berriro hesia zeharkatu eta zeharka doan bidea jarraituko dogu (hegoaldera), gure aurrean zelai bat eta antena bat ikusten ditudugula.

Berriro gorantz jarraituz erreka zuloa pasatuko dogu eta bidea mendi bizkarrera heldutakoan bukatu egingo da. Gure aurrean dagoen alanbre-hesia zeharkatu eta 30 bat metro igo biharko dogu gainekaldeko zelaira irtetzeko.

Zelai erditik jarraituko dugu hego alderantz, basoa ezker aldean dugularik, gure gainekaldetik dagoen horma txiki bat hasten dan lekuraino, Itzio-egi deitzen dan inguru honetan. Bertan, Mugarri txabolatik gora datorren mendibizkarreko a) aukerarekin bat egingo dogu.

**55. mugarria, "Itzioegi"** inguru honetan ei da, baina harri txiki bat denez, beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan.

**0:50** Horma horren kontra bidea irtetzen da Untzetazpikoa baserrirantz. Antena erreferentzia bezala hartuta bidian gora segituko dugu zabuka, bukaeran antenaren eskuma aldetik eskailera txiki batzuk eta atetxo bat zeharkatuz Untzetazpikoko kaminora irten arte. Bide hori jarraituko dugu eta Untzetazpikoa, sekulako bista duen baserriaren ate aurrera iritsiko gara.

- **1:00** Baserriaren gaineko aldetik bidea jarraitu eta beste antena baten ondora goaz, hesi bat pasa eta 10 bat metro eginda, lizar baten aldamenen dago beste mugarri bat, bidearen azpiko aldean.

**54. mugarria, "Untzetazpikoa"** izeneko mugarria, harlandu errektangularra P eta V letrak dauzkana eta norabidea ere ematen diguna.

- Bidean gora jarraituko dugu Untzetaerdikoa baserrira; eskumara begiratzuz gero, Karakate mendia paisaiaren jaun eta jabe da.
- Untzeta-erdikoa baserriaren inguruan, daramagun bidearen gaineko aldean, eta geriza batetik gertu dago beste mugarri bat, gure bidea eta baserriko kaminoaren artean.

**53. mugarria, "Untzetaerdikoa"** izeneko mugarria. Hau ere harlandu errektangularra, P eta V letrak dauzkana eta direkzioa ere ematen diguna.

- Untzetaerdikoa baserriko porlanezko pista hartuko dugu eta bertatik eskumara, iparraldera, jarraituko dugu, Untzetagañekoa baserriaren bide bila.
- **1:15** Bidegurutzera iristen garenean, ezker aldera jarraituko dugu baserrirantz eta berehala, 20-30 metrora, baserria ikusten hasten geran tokian eskuma aldera hartuko dugu, harrizko gurutze bat eta txabola berri baten aldera.

(Gurutze hau gerra sasoiaren hildako Serafin Atxotegi apaizaren oroimenez jarritakoa ei da, baina hainbat urtetan behea jota izan ondoren, Untzeta gainekoko sendiak gurutzea berriro jaso eta bertako seme baten oroimenez jarritako plaka dauka orain gurutzeak "Markos Larrañagaren oroigarritz 2000/01/04an hildakoa").

- Gurutzearen ondotik pasatu eta bidea aurrera jarraituko dogu Untzetagañeko zelaiaren barrenetik, horma eta pinudiaren artean. Bidea sasiz beteta egoten

da eta batzutan horma gainera igo beharra izango da, zelai barrenetik jarraitzeko. Pago baten azpian, bide azpikaldean, hurrengo mugarrira topatuko dugu.

**52. mugarrira, "Untzeta"** izeneko mugarrira. Mugarrira ederra, harlandu errektangularra, P eta V letrak dauzkana eta direkzioa ere ematen diguna.

- **1:20** Zelaia eta basoaren arteko bidea jarraituta, 2grren horma zatia hasten dan lekuan, bidea sasiz beteta dagoela eta, berriro horma gainera igo beharra edukiko dogu zelai barrenetik jarraitzeko. Alanbre hesi baten kontra berriro bidera jeitsi eta aurrera egingo dogu gorantz leku garbian aurrean daukagun pinu bakar baten gainetik jarraitzeko.
- Pinua pasatu ondoren alanbre hesi baten gainekaldetik bide batera irtengo gara. Bide hori jarraituko dugu eskuma alderantz, iparalderantz, gure eskumakaldean hesia daukagula eta erromara bat pasatuko dogu.

**51. mugarrira, "Untzeta"** hurrengo errebuelta inguruan izen bihar zan, baina harri txiki bat denez, beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan. Dana dala hemendil hasita Arteita (46) mugarriraino aldamenean daukagun hesiak markatzen dau Bergara eta Soraluze arteko jurgua.

- Bidea jarraituko dogu eta errekatxo batera helduko gara, urteko sasoi batzutan gainekaldeko harri artetik ura sortzen dan lekura.

**50. mugarrira, "Untzeta-iturri"** erreka zulo inguru honetan izen bihar zan, baina hau ere harri txiki bat denez , beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan. Alanbre hesia bertan daukagu.

- Bidean aurrera jarraitu eta errekatxo zulo txiki bat pasatu ondoren berriro beste errekatxo batera helduko gara, padari bat hasten dan inguruan. Bidea baino 20bat mt. gorago ura batzen daben deposito bat dago.

**49. mugarrira, "Birjiña iturri"** erreka zulo inguru honetan izen bihar zan, baina hau ere harri txiki bat denez , beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan. Alanbre hesia bertan daukagu.

- Aurrerago beste bidegurutze batera iritsiko gara eta eskumako bidea hartuko dogu beheantze, hesi bat pasatuko dogu, eta beste erreka zulo bat pasatu ondoren hurrengo bide gurutzean ezkerretik jarraitu biharko dogu, gorantz.

**48. mugarrira, "Birjiña iturri"** bide gurutz hontan eskumatik aurrera jarraituta hurrengo erreka zuloan izen biharko zan, baina hau ere harri txiki bat denez , beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan. Alanbre hesia bertan daukagu.

- Bidegurutzean gorantz hartuta, ezkerretik, bidea jarraitu eta errebueltan baten gure eskumako pinudia bukatzen da, beste pinudi gazte baten kontra.

**47 mugarría, "Txaretxe"** inguru hontan mugarri formal bat ei zegoen, baina gaur egun ez da azaltzen. Alanbre hesia bertan jarraitzen dau.

- Aurrera jarraitu, gorantz, eta mendi bizkarrera helduko gara, Arteita ingurura.

**46. mugarría "Arteita"** mendi bizkar hontan omen zegoen, baina hau ere harri txiki bat denez , beste referentzia barik, ezin da jakin zein dan. Hemen ere, alanbre hesia daukagu.

- **1:40** Mendi bizkarrrean, sare metaliko bat zeharkatu eta iparalderantz eta beheerantz jarraitu behar dugu pinudi baten, ezkerrean irtetzen diren bi bideri kaso egin barik, aldapa gogor baten beheara, Urko eta Oiz aldea gure eskuman ikusiaz.

Inguru honetatik gertu **45. mugarría "Lindaria"** omen zegoen, baina ez dakigu zehatz-mehatz non izango den. Hemen ere alanbre hesiak jarraitzen dau jurgua markatzen gure ezkerrekaldian pinudi zikinean sartzen delarik

- Une baten aldapa moteldu eta mendebalderantz jarraituko dugu bidea. Aurrerago, gure eskumatik lau-lau datorren bidea hartu beharko dugu, eki alderantz, eta 100 bat metro egin ondoren, harri pilla batekin markatuta dagoen lekuan, gure ezkerrekaldeko pinuditik zihar bajatu biharko dogu beheerago dagoen beste pista bateraino.
- Beste pista hontan, eskumara hartuko dugu bidea, ekialderantz, eta berriro ere lau-lau joango gara, bainera baten ondoan pasatuz eta Osteitxa baserria ikusten dugula, mendi bizkarrera heldu arte, pagadi baten gainekaldera.
- Une honetan gure ezkerrean, pagadi ertzetik bereruntz joko dogu zuzen-zuzen iparalderuntz. Pagadia eta bota berri dagoen pinudi ertzetik beheara joango gara lautada txiki baten mugarri eder bat ikusi arte.

**44. mugarría, "Sasi-beltz"** izeneko mugarría. Mugarri ederra, harlandu errektangularra, P eta V letrak dauzkana eta direkzioa ere ematen diguna.

- **2:05** Mugarriaren ostean, mendebalderantz irtetzen dan bide bat hartuko dogu, mendian zeharka pago eta korosti artean. Aurrerago bide gainean jausitako enbor gainetik pasatuko gara, eta ondoren bi pinu haundi gainekaldetik pasatu ondoren beheerantz joko dogu basoko pista batera irten arte.

**43. mugarría "Sasi-beltz"** hemen aurkitu ginuen lurtean buruz beheara sartuta, bere lekutik etarata. Bertan dago harria bide gainekaldian lagata.

- **2:15** Basoko pista hori jarraituko dugu mendebaderantz eta laster goitik behera datorren bide bat aurkituko dogu. Beherantz hartu eta Sasibeltz baso inguru hontan bidea ez dugu utziko Sagar-erreak zuloraino iritsi arte. Hemen aurkituko ditugu Sagarraga erreka, zubia eta GI-3331 errepidea.

**42. mugarría, "Sasi-beltz barrena"** zubi hori baino beherago, Soraluze aldera, erreka baztar inguruan zegoen. Gaur egun ez da azaltzen.

- **2:40** Zubia zeharkatu eta errekaen beste aldean GI-3331 errepidea hartuko dugu gorantz (ezker aldera), Soraluzetik Goimendi auzora doana. Hurrengo errebuelta inguruan, bide eskuma bazterria iturri bat dago.
- Errepidetik gora jarraitu, presa baten ondotik pasa, eta 300 metrora Ostegieta baserrira markatzen duen eskumako bidea hartuko dugu gorantz, errepidea utzita.

**41. mugarría, "Zubitxo",** bide-gurutze honen inguruan zegoen, erreka baztarrían. Gaur egun ez da azaltzen.

- Aldapan gora jarraituta asfaltoko pistatik Plaentxiko Ostegieta baserrira iritsiko gara.
- **2:55** Baserriaren aurretik pasa, langa handi bat zeharkatu, eta hiru bide aurkituko ditugu: ezkerrekoak, aldapa piko bat pasa ondoren mendi bizkarrean dagoen txabola baterantz eramango gaitue. Aurrean daukagun bigarren bideak ere, lehenengo aurrera eta gora eginda eta ondoren ezkerretara eginaz mendi bizkarrean dagoen txabolara eramango gaitu. Eskuman geratzen den laugarren bideak ez digu balio.
- Txabola ezkerrean lagata, mendi-bizkarrean aldapan gora egingo dugu, eta berehala mugarri eder bat gure aurrean agertuko da.

**35. mugarría, "Pago-zabal"** izeneko mugarría. Mugarri ederra, 1,20 metroko altuera duena, harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana.

- **3:00** Puntu honetan, mugarrien ibilbidea eskuma aldera joan arren, guk ezker aldera, hego mendebalderantz, egingo dugu joan-etorri bat, tarte hortan daren hainbat mugarri ikusteko .
- Mugarriaren ondoan dagoen ezkerreko alanbre itxitura gaintetik pasatu eta hego mendebalderantz luzatzen den beste alanbre hesi baten barrenetik, jarraitu behar dugu.

**36. mugarría, "Pago-zabal"** izeneko mugarría, aurreko mugarritik 35 metrora agertuko da, alanbre itxituraren beste aldean, harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana, lurretik gutxi altxatzen dena.

- Itxituraren barrenetik jarraitu eta aurrerago beste mugarri bat topatuko dugu, bi harriekin, alanbre itxiturak direkzio aldaketa bat egiten duen puntuan.

Inguru honetan **37. mugarria, "Pago-zabal"** omen zegoen, baina ez da azaltzen. Gure ustez haren ordeaz jarritakoa da gaur egun dagoena.

- Hemendik aurrera, beti alanbre itxiturari jarraituta, beste mugarri txiki bat topatuko dugu esola artian.

Inguru honetan **38. mugarria, "Pago-zabal"** omen zegoen, baina ez da azaltzen. Dana dala hesiak berak markatzen du jurgua.

- Aurrera jarraitu alanbre itxitura barrenetik eta beste mugarri pare bat topatuko dittugu ezola artian: 1goa mugarri formala eta 5mt harutzago harri zapal bat tente jarrita.

**39. mugarria, "Vergaldia"** izeneko mugarria alanbre itxitura ondoan dago, harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana, lurretik gutxi altxatzen dena.

- **3:10** Mugarri honetatik gertu, 5 bat metrora beste harri tente bat dago, sailen arteko mugarri bat segurutik. Eta beste 60-80 metrora, alanbre itxiturak 90ºko direkzio aldaketa egiten duen puntuan, beste harri zapal bat dago, etzanda.

Puntu honetan pentsatzen dugu **40. mugarria, "Vergaldia"** izeneko izango zela, baina ez da azaltzen. Haren ordeaz jarritakoa izan daiteke egun bertan ikus dezakegun etzandako harri zapala.

Hemendik, alanbre itxiturak behera egiten du, hego ekialderantz, **"Zubitxo" 41. mugarrirantz**. Jurgua zuzen-zuzen pinudian zehar behera doa, errekatxo zulo baten ingurutik.

- Hemendik, berriz atzera egin beharko dugu 35. mugarrira bueltatuz, handik aurrera mugarren ibilbidearekin jarraitzeko.

- **3:20** Behin 35. mugarrira bualtuta, ipar mendebalderantz jarraitu behar dugu, alanbre itxitura ezkerretan dugula. 70 metro ingurura, gaintxo txiki bat pasatu ondoren, hesola baten kontra mugarri bat azalduko da.

**34. mugarria, "Pago-zabal"**, harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana, lurretik gutxi altxatzen dena.

- Alanbre itxituraren barrenetik jarraituko dugu mendebalderantz, eta mendi bizkarrari buelta emongo dotsagu hune batean.

Inguru honetan **33. mugarria, "Ayardi"** omen zegoen, baina ez da azaltzen. Dana dala hesiak berak markatzen du jurgua.

- Aurrera jarraitu aldapen behera, behetik datorren pista billa, eta tarte honen erdi inguruan, alanbre itxuratik 4-5 bat metro gorago azalduko da beste mugarri bat.

**32. mugarria, "Ayardi"** harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana.

- **3:35** Hemendik, beheko bidera jaitsiko eta bertatik gora, ezkerretara, egingo dugu. Langa eta erreka zulo bat pasatu ondoren, 80 bat metrotara, beste erreka zulo bat pasatuko dugu.

**31. mugarria, "Ayardi"**, erreka pasatu eta bidearen azpiko aldeko pagadian dago, oso gertu bai erreka zulotik eta bai pista bertatik, harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana, eta lurretik gutxi altxatzen dena.

- Berriz ere bidera bueltatu eta 100 bat metrora, pagadia bukatu eta bide gurutze baten, gure eskuman beste mugarri bat agertuko da, bidean bertan.

**30. mugarria, "Ayardi"** harlandu errektangularra, eta P eta V letrak dauzkana.

- Gora doan bidea, ezkerrekoa, hartu eta pinudi barrenean aldapa luze eta gogorra igoko dugu, zaguka (S-ak eginaz), goiko mendi bizkarrera heldu arte.
- Gaina hartzen dugunean, bidea lautzen denean, eskumatarantz jarraitu ezkerreko Iruretik gora datorren pista irtengo dugu. Guk zuzen sartuko gara pinudian barrena (mendebaldera), berehala hego mendebaldera egiteko mendi bizkar billa. 100 bat metrora topatuko dugu mugarria, mendi bizkarrean, Irure aldetik datorren pistatik 10bat mt. ezkerrean.

**29. mugarria, "Santutxo Aingeruarda"** izenekoa; orain arteko handiena seguruenetik, 1871ko urtekoa bertan jartzen duenez; Eibar, Bergara eta Plaentxi artekoa.

- **4:00** Mugarritik, goruzko joerarekin, hegoalderantz jarraituko dugu zuzen, pinudian zehar, eskumako pista hartu gabe, eta aurrean ikusiko dugun pista baten barrenean, ezkerrekaldean mugarri bitxi bat topatu arte.

**28. mugarria, "Santutzueta"** izenekoa, harlandu errektangeluar formakoa, eta E eta B letrak dauzkana.  
-Aldamenean beste harri zahar tente bat dago, 1764 urtea bertan jartzen duena.

- Mugarriaren gainekaldeko pista igo eta bertatik jarraituko dugu eskumatarantz (mendebalderantz) eta lehen lagatuko Irure auzotik datorren pista jaitsiko

gara, bertatik mendebalderantz segituz bide gurutze bat topatuko dugu mendi gaintxo batean.

- Hemen mendebaldera hartu behar dugu mendi gaina jarraituz. Une baten mendiaren ezker aldetik jarraituko dugu, eta aurrerago, dakargun bideak behera egiten duenean, bidea utzi eta eskuma aldera (ipar alderantz), gora jarraituko dugu, gainaren bila, pinudian barrena bidea jarraituz, Topinburuko buzoia aurkitu arte: 590 m.
- **4:15** "Topinburu" gainetik eta ekarri dugun direkzioa kontuan hartuta, eskumara egingo dugu pinudi barrenetik beherantz (iparraldera) mendi bizkarra jarraituz. Pare bat aldiz pista batzuk zeharkatu eta behera jarraituko dugu bidexka galdu gabe. Dakargun bidean aldapa gogor bat jaitsiko dogu eta hirugarren pistara heldu.

**27. mugarría, "Salbadore-kurutzia"** izenekoa, harri irregularra, gaineko ertzak borobilduta dauzkana, eta E eta B letrak dauzkana pista honen azpiko aldean dago, mendi bizkarretik pixkat ezker aldera..

- Gainekaldeko pista eskumara (mendebaldera) segituko dugu, zeharka, pinudi artetik, itxitura zahar baten esolak eskuma aldean dauzkagula. Pistako zabalgunek bat pasatuko dogu, eta hurrengo errebueltan eskuma aldean dagoen amildegi baten ("Kanteria") aurretik, bide azpikaldian dagoen alanbre hesi zahar baten kontra dago hurrengo mugarría.

**26. mugarría, "Zarroi"** harlandu errektangularra, eta E eta B letrak dauzkana.

- Berriró pistatik jarraituko dugu mendebalderantz, pinudi artetik, beherantz, Eibar aldetik datorren pista baten billa, lehen aipatutako "Kanteria" barrenetik.

Inguru honetan **25. mugarría** omen zan, "**Zarroi**" izenekoa, baina gaur egun ez da azaltzen.

- Aurrera jarraitu eta 1go Topinburu aldetik datorren txirrindulari bide batekin alkartu gara, eta ondoren Eibar aldetik datorren pista formal batera helduko gara.

**24. mugarría, "Bergaretxe-zelaia"** izenekoa, harlandu errektangularra, eta E eta B letrak dauzkana, bidegurutzetan bertan, pistaren ertzean zegoen apurtuta. Gaur egun behekaldeko pinudian botata dago mugarría..

- Pistan aurrera jarraitu, mendebalderantz eta 50 bat metrora, Topinburutik datorren oinezko bide parian, pistaren eskumako ertzean beste mugarría bat dago. Mugarría hau sail ezberdin arteko mugarría da, ez da herri arteko mugarría.



- Bidean aurrera jarraitu, hego-mendebalderantz eta berehala GI-3331 errepidera irtengo gara, "Gure basetxea" elkartearen txabola baino 50bat metro gorago, Eibartik datorren bide baten bide-gurutzera.

**4:40** Hemengo bi mugarri ikusteko, errepidean eskuma aldera (mendebaldera) hartu bihar dogu Azurtza aldera. 1go errebuelta bukatzen danean, GR marka bat baino lehentsuago, errepide eskuma aldean horma txiki bat eta plataforma lau bat bukatzen dan tokian, gure eskuma aldean sartu bihar gara pinudian zehar, alanbre itxitura zahar baten billa, zuzen-zuzen iparralderutz, alertze pinudi baten gainekaldean. Alanbre itxitura horrek 90°ko aldaketia egiten daben lekutik 5bat metro eskumatara dago hurrengo mugarria, ezola baten ondoan, inguru nahiko zikinean.

**23. mugarria, "Bergaretxe-zelaia"** izenekoa, harri luzeska bat, E eta B letrak dauzkana.

- Errepidera irten berriro eta eskuma aldera jarraitu (mendebaldera) Azurtza aldera, eta gure ezker aldean gelditzen den Azurtza Berri txabola sailaren atearen parean, gure eskuma aldean sartu bihar gara pinudian zehar iparralderutz, alanbre itxitura zahar baten billa, alertze pinudi sail baten jurguak "L" formako egiten daben txokoa billatu arte. Mugarria pago baten azpikaldian eta abeto txiki baten ondoan dago, errepidetik 30 bat metrora edo, sail nahiko zikinean, sastraka artean.

**22. mugarria, "Azurtza-Iturriburua"** izenekoa; Eibar, Bergara eta Elgeta artekoa. Harlandu errektangularra, eta E, E eta B letrak dauzkana.

- Berriz errepidera bueltatuko gara eta hemendik gertu, oinez 5 minutura, Azurtzako bi baserri eta Goimendi auzoko Santiago baseliza daude bisitatu nahi baditugu. Dena den, gure ibilbidea errepidean behera doa, lehen ekarritako bidetik.
- **5:00** "Gure basetxea" elkartearen txabola aurrean, Intxuzabal eta Lezeta baserriaren bidea ezkerrean laga eta eskumakaldeko errepidea jarraituko dogu beherantz (hego-mendebaldera) Soraluze aldera, Bergaretxe baserriaren gainekaldetik pasatuz.
- **5:10** Errepidean goitik behera goazela, 5garren kilometroa adierazten digun kartela pasa eta 200 bat metrora, erreka ondoan gure eskuman agertzen den bide garbia hartuko dugu, gorantz (mendebaldera).
- Erreka atzean laga eta ohartuko gara zati baten A.T. (tentsio altuko) indarraren kableen azpitik goazela. 2grren erreka pasatu eta aldapa hasitakoan, argi indar poste txiki bat baino lehentsuago, basoaren ertzean, gure eskuma aldeko mugia igo eta eskumako mendi bizkar aldera joango gara goikaldeko alanbre itxitura bat eta harrizko horma baten billa. Aurrean ikusten dugun gorostiaren ondoan dago mugarria, alanbre itxituraren ondoan.

Harrizko horma honek jurgua bera markatzen du, eta harri hesi horren kontra harri irregular tente bat dago, gainekaldian kurutza formako marka duena, **21. mugarría "Lantegizarra"** izenekoa.

Gure ustez, harri hesiak herri arteko jurgua markatzen dau.

- **5:20** Mugarría ondoko itxitura eta hormaren artian gorutz jarraitu eta baso bide batera irtengo gara. Bide hori beheruntz jarraitu sasi artian eta aurretik lagatako bidera irtengo gara berriro, lehen ikusitako argi indar postearen ondoan. Bide horretatik gora jarraitu eta 150 bat metro aurrerago gainekaldean, gure eskuman, beste harri tente bat oso garbi ikusiko dugu itxitura eta horma baten azpikaldian. Gure ustez bai hormiak eta baita mugarría honek jurgua markatzen dute ere.
- Gorantz jarraituko dugu (hego ekialdera) eta errebuelta baten ondoren bide gurutze bat topatuko dugu, Gaztandola gaina.

Toki honetan omen zegoen **20. mugarría, "Gaztandola"** izenekoa, baina gaur egun ez da azaltzen, dirudienez pinuak ateratzerakoan edo desagertuko zen.

- **5:30** Bidegurutze honetan gorantz jarraitu behar dugu (mendebaldera), eta aldapan gora saguka bidea jarraituz beste pista formal batera irtengo gara. Hemen ezker aldera jarraitu (hegoaldera) eta aurreratsua Azulagaina ikusiko dogu gure aurrean.
- Padari txiki bat dagoen bidegurutzean, ezkerreko bidea jarraituz gero, 120bat mtra. Iturri txiki bat aurkituko dogu, "Mendioste" paraje honetan.
- Aldapan gora jarraitu eta berehala "Bokete" deitutako mendi gaineko lepora iritsiko gara, bidegurutze batera.
- **5:40** Hurrengo mugarría ikusi nahi baldin badugu, bidegurutze honetan ezkerreko aldera (ekialdera) jarraitu behar dugu, mendi bizkarrean gora, Azulagaña harrapatu arte. Hemen aurrera jarraitu tontorretik 100 bat metro beherago, mendi bizkarrean, eta apurtutako mugarría ikusiko dogu.

**19. mugarría, "Azulagaña"** izenekoa; harlandu errektangularra eder bat zan, E eta B letrak zauzkana, baina gaur egun bi zatitan apurtuta ikusiko dugu, 2012ko apirilean pinudi lanetan ibili ondoren.

- **5:50** Berriro atzera jo, lehen ekarri dugun bidetik Boketeko lepo bidegurutzeraino, aurpegia Azkonabitzako antenari emanaz.
- **6:00** Bidegurutzean pista aurrera jarraitu mendebalderantz, zulo bat ikusiko dogu gure eskuma aldi, eta lepotik 100 bat metrotara ezkerretik beherutz doian bidea hartuko dugu zuzenean, 20bat mt. aurrerago berriro ezkerretik jarraitu ekialderutz, eta saguka egin ondoren Azula baserriko zelai gaineko

bidetik jarraituko dogu, baserriaren teillatua ikusiaz, padari txiki baten barrenian Azula baserrira daraman bidera irten arte.

- **6:10** Azula baserriko bidea jarraitu, eskuma aldera (mendebaldera) horma artean, eta 100 bat metro aurrerago, ezker aldetik eta beherantz hartuta, Beizu baserriko bidea jarraituko dugu. Beizu baserria eskuman lagata, ixtura bat pasa, aska baten ondoan, eta bide eder batetik luze beherantz jarraituko dugu mendi bizkarrean, Ubera aldera doan bidetik.
- Une batean, burdinezko atea dauzkan zelai bat zeharkatuko dugu eta Agirre-Zezeaga baserriaren bidera irtengo gara.
- **6:35** "Markiegi nagusi" baserria parean dugula, gure eskumatara Agirre-Zezeaga markatzen digun bidea hartuko dugu, erromara bat pasatu eta baserri horren aurrera heldu arte.

Toki honetan zegoen **18. mugarría "Agirrezezeaga"** izenekoá, etxearen atzekaldean dagoen lautadatxoaren ipar-ekialdeko ertzean, baina gaur egun ez da azaltzen.

- **6:40** Agirrezezeaga baserriaren alberga ondoan aurrera jarraituko dugu (ipar mendebaldera), baserri gainekaldeko bidetik, aurrean Castillo baserri berezia ikusten dugula. Beherutz doiazan bideei kaso egin barik aurrera segituko dugu beste bide garbiago batekin bat egin arte, eta ezkerreara jarraituko dugu beherutz errekaraino, jausitako Errekalde baserriaren hondakinak ikusiz.
- **6:50** Hemendik behera jarraitzeko, erreka eskumatik edo ezkerretik joan gaitzke:  
Errekalde aurrean beherutz hartu eta Zeziaga erreka ezkerreko pista jarraituta laster helduko gara Zeziaga baserriko bidera, Zeziaga erreka eta Bekoetxe erreka alkartzen diren lekura. Bide erdian, erreka baztarrían, dago 17 mugarría baina alde hontatik oso zaila da bertara heltzea.
- Guk Errekalde gainekaldetik errekaraino joan, erreka beste aldera zeharkatu, eta gorago dagoen errotatik datorren bidea jarraituko dogu beherutz, Zezeaga erreka eskumakaldetik.
- Bidean behera padari txiki bat pasatuko dogu, eskuma aldean kantera bat ere bai, eta ondoren errekatxo bat eta eskumatik datorren bide bat. Hemendik behera goazela, erreka bestekaldian harri horma on bat ikusiko dogu. Horma hori bukatzen dan lekuan, horma beraren kontra, erreka bestekaldian dago mugarría. Gure aldean, abeto sail batera heldu baino lehentsuago.

**17. mugarría, "Agirrezezeagabekoa"** izenekoá; harlandu errektangeluar formakoa, eta E eta B letrak dauzkana.

- Errekatxoaren aldamenetik jarraituz, txabola baten inguruan, porlanezko pista batera iritsiko gara, Zeziaga baserriko bidera. Bertan ezkerrera egin eta Zeziaga erreka eta Bekoetxe erreka alkartzen diren lekura helduko gara.

Toki honetan, Zezeaga errekatxoak eta Bekoetxe erreka bat egiten duten lekuan **16. mugarría "Jalotza-basoa"** izenekoa zegoen, baina gaur egun ez da azaltzen.

- **7:00** Porlanezko pistatik jarraituko dugu beherantz, hegoaldera, eta zubi bat pasatu. Erreka gure ezkerrean daramagula, presa txiki baten aurretik pasatuko gara. Aurreraxeago, eskuma aldera gorutz aldapa bat daukan bide batetik gorantz hartuko dugu ipar-mendebalderantz. Gorago aurkituko dugun bidegurutzean, ezkerretara hartuko dugu eta pinudian behetik gora egingo dugu berriro hegoaldera.
- **7:10** Jalotza baserriaren sailtako hesira heltzen garenean, hesiaren ondo-ondotik eta berau eskuma aldean dugula, gorantz jarraituko dugu. Azpiko aldean Bergara-Elgeta errepidea ikusten dugula mendizulo gainekaldetik pasatuko dogu eta pixkat aurreratsiago, itxituratik 20bat metrora, pinudian behera sartuta mugarrí eder bat dago.

**15. mugarría, Jalotza** baserriaren inguruan. Mugarrí hau ez da azaltzen 1939ko aktetan. Honen eraginez, data horren ondoren eginiko mapak gaizki daude eta Jalotza baserria, berez Elgetakoa dena, Bergaran azaltzen da. Mugarrí ederra da, harlandu errektangularra, E eta "13" markak dauzkana alde baten, eta B eta "15" bestekaldean.

- Berriz alanbre itxiturara igo eta haren barrenetik aurrera egingo dugu hegoaldera, argindar dorre bat aurkitu arte. Hemendik, zuzenean behera, errepidera, geriza arbola artean, Bergara-Elgeta errepidera (GI-2632) joko dugu. Hortxe, bide bazterrean, gaurko azken mugarría dago, 40ko abiadurako seinalak eta 31km.aren seinalaren tarteko erdialdian.

**14. mugarría, "Jalotza-basoa"** izenekoa; harlandu laukizuzena, eta "Elgeta" eta "Vergara" letrak dauzkana.

- Errepidea bestaldera zeharkatu eta 40ko abiadurako seinalaren kontra pinudian zehar jaitsiko gara, bidexka bat aprobetxatuz. Pinudiaren ertzetik zuzen jeitsiko gara eta azpiko aldetik doan bide formal batera helduko gara; hor ezkerretara hartuta porlanezko bideari jarraituko diogu, Uberagoena baserritik pasatu eta errepidera irten arte.
- **7:30** San Paulo txiki aurretik pasatu eta berehala Uberako plazara iritsiko gara, gaurko ibilaldi luzeari amaiera emanaz. Bertan iturri zahar bat dago San Paulo txiki santutxoaren ondoan, eta beste berri bat umeen ziburu jokuen lekuan, erreka baztarrian.

Bergara, 2013 aprilak 14